

LGTB TALDEARENTZAKO ESKUBIDEEN IKUSTARAZTEA TRANSIZIOTIK GAUR EGUNERAINO.

Atal honetan Estatu espainiarreko eta Euskal Herriko gay, lesbiana eta transexualen eskubideei buruzko gertaera garrantzitsuenak aipatuko dira.

1978	Konstituzio berriak berdintasun formala dakar, izan ere, 14. artikuluan ez dela sexua, arraza, erlijioa edo beste “edozein egoera sozialengatiko” diskriminaziorik onartuko aipatzen du.
1979	Arriskugarritasun Sozialaren Legea aldatzen da, “homosexualitate ekintzen” aipamena kentzeko. Oraindik ere "eskandalu publikoa” badago, eta gay, lesbiana eta trans pertsonak jazartzeko erabiltzen da.
1983	Sexu-berresleipenaren operazioa despenalizatzen da.
1985	Homosexualitatea delitu bezala Zigor Kode Militarretik kentzen da.
1988	“Eskandalu Publikoa” Zigor Kodetik kentzen da.
1994	Gasteizen izatezko bikoteen lehenengo erregistroa sortzen da. Bikote heterosexual eta homosexualak, harreman afektiboa egiaztatzen duen kontratu zibila badagoela erregistratu dezakete. Jarraian, eta aurrerantzeko urteetan, izatezko bikoteen udal-erregistroak sortzen hasten dira Espainiako Estatuan.
1994	Hiri Errentamenduen Legeari esker, HEL, sexu-joera kontuan hartu gabe, izatezko bikoteak lehenengo aldiz onartzen dira.
1995	Zigor Kode berria sortzen da, “demokraziako Kodea” deitutakoa, honek, homofobia behin-betiko zigortzen du, eta politika publikoetatik edozein elementu diskriminatzaile kentzen du.
1995	Indarkeriazko eta askatasun sexualaren aurkako delituen biktimenzako Laguntza eta Diru-laguntzen Legeak izatezko bikoteak berriro ere onartu egiten ditu, beren sexu-joera kontuan hartu gabe.
1998	Parlamentu andaluziarrak Osasun-zerbitzu andaluziarrak eskaintzen duen zerbitzuen gutunean tratamendu transexuala barne hartzea onesten du. 1999an, Genero Identitatearen Arazoen Unitatea deitutako lehenengo zerbitzu espezializatua eta diziiplina anitzekoa sortu zen Malagako Carlos Haya ospitalean.
2000	Nafarroan izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago (Uztailaren 3ko Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikorako 6/2000 Lege Forala)
2003	Euskadin izatezko bikoteen lege autonomikoa onesten da. Lege honen barnean adopzioa dago (Martxoaren 20ko Izatezko Bikoteen 5/2003 Legea).
2005	Diputatuen Kongresuak 13/2005 legea onesten du, eta honen bidez, ezkontzeko eskubidearen gaian Kode Zibila aldatzen da, eta honi esker, bi emakume edo bi gizonak beren harremana ezkontzaren bidez arautu dezakete. Beste gauza batzuen artean bikotekidearen seme-alabak adoptatzeko eskubidea barne hartzen du.
2007	Diputatuen Kongresuak Genero Identitatearen Legea onesten du. Lege honi esker, pertsona transexualek izena aldatu dezakete erregistro zibilean, sexu-organoak operatu beharrik gabe.